

ZURRIOLA

ikastola



VILLA SOROA-ARAUTEGIA

ANTOLAKETA OROKORRA

1.SARRERA-IRTEERAK

Irailaren 24tik aurrera goiz eta arratsaldez hasiko gara. Aurten, sarrera-irteeretan aldaketa batzuk egin ditugu, antolaketa ahalik eta hoberena izan dadin. Hurrengo lerroak arretaz irakurtzea eskatzen dizuegu, mesedez.

9:00etan SARRERA

2 URTE: idazkaritzatik

3-4-5 URTE: ataritik eta barruko eskaileretatik. Ez erabili kanpoko eskailerak, mesedez. 9:30ean atariko atea itxiko dugu. Hemendik aurrera idazkaritzako atea erabili, mesedez.

12:30ean IRTEERA

GUZTIAK idazkaritzatik sartu beharko duzue. Haurrak geletan jasoko dituzue. Ez sartu ikastolara 12:30ak arte, mesedez.

15:00etan SARRERA

GUZTIAK ataritik.

Gogoratu arratsaldeko zaintzan geratzen ez diren 2 urteko haurrek ez dutela arratsaldean etortzeko aukerarik.

ARRATSALDEKO IRTEERA

2 URTE: 15:30etik 17:00ak arte jaso ditzakezue haurrak. Horretarako idazkaritzako atea erabiliko duzue. Haurra jaso eta gero ezin zarete plazan geratu.

3 eta 4 URTE: idazkaritzako atetik sartuko zarete eta haurrak geletan jasoko dituzue .

5 URTE: atarian jasoko dituzue haurrak. Kontuan hartu lehenengo autobuseko haurrak aterako direla. Mesedez, bidea ez oztopatu .

3-4 eta 5 urteko haurrak 16:30etik aurrera ezin dituzue jaso (arrazoi berezirik ez badago). **Haurra jaso eta gero ez geratu plazetan.** Nahi izanez gero ataria irekita izango duzuen 17:00etatik 18:00ak bitarte.

ORGANIZACIÓN GENERAL

1. ENTRADAS-SALIDAS

A partir del 24 de septiembre comenzaremos con la jornada de mañana y tarde. Este año hemos hecho algunos cambios en las entradas y salidas de la ikastola con el objetivo de mejorar la organización durante las mismas.

9:00 ENTRADA

2 AÑOS: por secretaría

3-4-5 AÑOS: por el patio y las escaleras interiores. No utilizéis las escaleras exteriores, por favor.

A las 9:30 cerraremos la entrada del patio. A partir de esta hora utilizad la entrada de secretaría.

12:30 SALIDA

Deberéis entrar TODOS-AS por secretaría. Recogeréis a las niñas-os en sus aulas. No entréis en la ikastola hasta las 12:30, por favor.

15:00 ENTRADA

Deberéis entrar TODOS-AS por el patio.

Recordad que las niñas-os de 2 años que no hagan siesta en la ikastola no tienen la opción de venir por la tarde.

SALIDA POR LA TARDE

2 AÑOS: podéis recoger a las niñas-os de 15:00 a 17:00. Para ello deberéis utilizar la entrada de secretaría. Después de recoger a las niñas-os no está permitido quedarse en la plaza y deberéis salir de la ikastola.

3 eta 4 AÑOS: utilizaréis la entrada de secretaría. Recogeréis a las niñas-os en sus aulas.

5 AÑOS: Recogeréis a las niñas-os en el patio. Tened en cuenta que primero saldrán las niñas-os que utilicen el autobús. Por favor, intentad no entorpecer el paso de las mismas.

No podréis recoger a las niñas de 3-4 y 5 años a partir de las 16:30 (sólo en casos excepcionales). **Después de recoger a las niñas-os no os podréis quedar en las plazas.** El patio estará abierto de 17:00 a 18:00.

2. ATARIA

Arratsaldeko 5:00etan, haurrak jasotzen dituzuenean, ATARIAn geratzeko aukera daukazue. Momentu polita da haurrak familiekin batera lagunartean elkarrekin egoteko. Ikastolan sarrera unea garrantzitsua den bezala, irteera momentua ere munta handikoa baita. Haurrak beste hurrekin, gurasoak hurrekin, gurasoak beste gurasoekin... ingurune aproposa da egunean zehar edo astean zehar ahuldu diren era askotariko harremanak sendotzeko. Beraz, bertatik animatzen zaituztegu leku eta une horretaz disfrutatzen.

Momentu horretan, aldi berean, egunean zehar nolabaiteko jolas eta heziketa-antolaketa izan duen ingurune horrek beste egituraketa, beste tankera bat, hartzen du nahita nahiez. Hori dela eta, zenbait arau edo jokabide gogoraraztea egokia iruditzen zaigu, ATARIAk denona izaten jarrai dezan:

- **Hondar txokoa** estalita egongo da eta ondorioz ezin da erabili 17:00etatik aurrera.
- **Gurpildun jostailuak eta baloia** debekatuta daude.
- **Motorrak** gordetzen ditugun espaziora ez sartu.
- **Haurrak hesietara igotzen ez direla begiratu** (batez ere senide helduagoak etortzen direnean).
- ATARIA denona izateaz gain **ATARI txukuna** izatea nahi dugunez, gogoratu:
 - **Ikastolan birziklatzen dugu:** hondakin bakoitza bere ontzira bota.
 - **Komunak zaindu** eta txukun mantendu.
 - **KOMUNETIK BEHERA TOALLITA EDO KOMUNEKO PAPER BUSTIRIK EZ BOTA,** mesedez. Oso kutsakorrak izateaz gain, estolderian arazo larriak sortu dituzte dagoeneko.
- 17:00etatik aurrera **ezin dira barruko komunak edo gelak erabili.** Garbiketako langileak euren lana egiten ari baitira.

Eta GOGORATU, esaera zaharrak dioen bezala "LAGUNARTEAN ORDUAK LABUR", beraz konturatu orduko oso litekeena da Ataria itxi behar izatea. Hortaz, kontutan hartu:

**ATARIA 18:00etan IXTEN DA,
bitartean
disfrutatu ATARIAz!**

2.EL PATIO

A partir de las 5 de la tarde tenéis la oportunidad de disfrutar del patio en compañía de otras familias. Por otro lado, os queremos recordar algunas normas que ayudan al buen funcionamiento de éste:

- **El Arenero permanecerá cerrado** y no se podrá utilizar a partir de las 17:00.
- **Está prohibido circular con bicicletas, patinetes, etc. y jugar con el balón.**
- No se podrá acceder al espacio donde se guardan las motos.
- **Vigilad que los niños-as no se suban a las vallas.**
- Para que el patio esté lo más limpio posible, recordad:
 - **En la Ikastola reciclamos.** Cada residuo a su contenedor.
 - **Mantened limpios los baños**
 - **No tirad toallitas o papel higiénico húmedo por el retrete.** Además de ser muy contaminantes, ya nos han ocasionado problemas en las cañerías.
- A partir de las 17:00 **no se podrán utilizar los baños del interior de la ikastola.** El personal de limpieza está trabajando.

**EL PATIO CERRARÁ SUS PUERTAS
A LAS 18:00.
Mientras tanto... ¡a disfrutar!**

3.OSASUN ARRETA

Haurren inguruko datuak eguneratuak izan ditzagun, haurraren osasun egoeran aldaketarik izanez gero tutoreari honen berri eman behar diozue.

Epe luzerako osasun egoeran aldaketak: intolerantzia, alergia edo bestelakorik diagnostikatuko baliote, sendagilearen informea eta protokoloa ekarri beharko diozue **tutoreari** (arriku egoeretan nola jokatu behar dugun jakin dezagun). Gainera, jangelan geratuko balitz, bertako arduradunarekin (Pilarrekin) hitz egitea eskatzen dizuegu, haurra ahalik eta modu egokienean artatu dezagun. Haurrak arriku egoeretan sendagai berezirik beharko balu, ekar ezazue ikastolara eta tutoreari azaldu honen erabilera.

Epe motzerako osasun egoeran aldaketak: haurra ikastolara etortzeko ondo badago baina ikastolan dagoen bitartean sendagairik hartu beharko balu (antibiotikoa adibidez), dosia prest ekarri beharko duzue, ondo babestua, dosia/ordua/izen-abizenak adieraziz. Guk banatutako ziurtagiri bat ere bete beharko duzue. **Mesedez, ahal den kasuetan, sendagaia ikastola orduz kanpo ematea eskatzen dizuegu.**

Haurrak ikastolan gaixotuko balitz: Familiekin kontaktuan jarriko gara. Familiekin hitz egiterik lortuko ez bagenu, ibuprofenoa edo parasetamola ezinbesteko kasuetan emango diegu hurrei.

Haurra gaixotu da eta etxean dago: kutsakorra den kasuetan gurekin kontaktuan jarri e-mailez, hartu beharreko neurriak har ditzagun. Oso larria den kasuetan idazkaritzara deitu.

Haurra gaixo badago ez da ikastolara etorriko. Besteak beste, hurrengo kasuak bereziki kontuan hartzea eskatzen dizuegu:

- Haurrak gaixotasun arrunta duenean (sukarra $\geq 38^{\circ}\text{C}$, eztula,...).
- Gaixotasun kutsakorren sintomak agertzen dituenean, hots: sukarra eta eztarriko mina-etengabe edo irenstean, konjuntibitisa, barizela, eskarlatina, estomatitisa, botaka, beherakoa behin eta berriz, belarriko mina, haserrekortasuna edo ezinegona badu, ondoeza,...
- Haurrak beherakoa duen kasuetan sintomak desagertu arte ez da ikastolara etorriko. 24 orduz beherakorik gabe egotea hobesten da.
- Haurrak azken 24 orduetan bitan edo gehiagotan botaka egin duenean eta gaitz kutsakor batek eraginda izan baliteke edo haurrak deshidratatzeko arriskurik balu.

Jangelan *dieta* eskatzeko aukera: aukera hau ez da modu jarraian erabiltzeko, egun puntualetan baizik.

Zorriak eta heste-zizareak: oso kutsakorrak dira. Guztiok arduraz jokatzeko eskatzen dizuegu, kutsadura zabaldu ez dadin.

3.ATENCIÓN SANITARIA

Con el objetivo de poder actualizar los datos sobre el estado de salud de las niñas-os, deberéis notificar a la tutora cualquier cambio en el mismo.

Cambios crónicos en el estado de salud: si le diagnosticaran alguna intolerancia a la niña-o, alergia o algo similar, deberéis traernos el informe médico y el protocolo (para poder actuar de la manera más apropiada en casos de emergencia). Si la niña-o se quedase en el comedor, os rogamos que habléis con la responsable del mismo (Pilar), para así poder atender las necesidades de la niña-o de la mejor manera posible. Si en algún caso de emergencia la niña-o necesitara algún medicamento en especial, traedlo cuanto antes a la ikastola.

Cambios puntuales en el estado de salud: si la niña-o se encuentra en un buen estado de salud pero debe tomar algún medicamento (antibiótico por ejemplo), deberéis traer la dosis preparada, bien protegida e indicad la **dosis/hora/nombre-apellido** de la niña-o. Deberéis también rellenar un permiso que os facilitaremos nosotras. **Por favor, en los casos que sea posible, os pedimos que administréis los medicamentos fuera del horario escolar.**

Si la niña-o se enferma en la ikastola: nos pondremos en contacto con la familia. Si no lo consiguiésemos, le administraremos ibuprofeno o paracetamol en caso necesario.

Si la niña-o no viene a la ikastola porque está enferma: en caso de enfermedad infecciosa, comunicádnoslo por e-mail para que así podamos actuar de la mejor manera posible. En casos muy graves llamad a secretaría.

Si la niña-o está enferma, no la traeréis a la ikastola. Os rogamos que tengáis especial cuidado en los siguientes casos:

- Cuando la niña-a tiene fiebre ($\geq 38^{\circ}\text{C}$), tose,...
- Cuando tiene síntomas de una enfermedad infecciosa: fiebre y dolor constante de garganta, dolor al tragar, conjuntivitis, varicela, escarlatina, estomatitis, ganas de vomitar, descomposición continua, dolor de oído, malestar, ...
- Si la niña-o tiene descomposición, no acudirá a la ikastola. Se recomienda, por el bien de todos-as, no acudir hasta pasadas 24 horas sin síntomas.
- Si la niña-o a vomitado 2 o más veces en las últimas 24 horas y se sospecha que pueda ser debido a una enfermedad infecciosa o haya peligro de deshidratación.

Opción de pedir dieta en el comedor: esta opción es para casos puntuales.

Piojos y lombrices: se contaminan fácilmente. Por ello, todas-os deberemos actuar de manera responsable y según las recomendaciones.

4.BESTELAKO OHARRAK

- Aurkitutako **izen-abizenik gabeko arropa** beheko esekitokietan utziko dugu. Hilabeteko azken ostiralean hortik kenduko dugu. Zerbait falta baduzue tarteka begiratu, faborez.
- **3-4 eta 5 urteko haurren kasuan ikastolara barruko arropa bat eta galtza batzuk ekarri.** Kaxa batean sartuko ditugu eta guztiok guztiona erabiliko dugu. Haurra etxera ikastolako arroparekin joango balitz ahalik eta azkarren ekar ezazue ikastolara, mesedez.
- Urtebetetzeak taldeka ospatuko ditugu. Hau ospatzeko bizkotxoak eta kandelak ekarri, mesedez. Bestalde, ez ekarri litxarkeriarik edo txokolaterik.
- AUTOBUSA: 2 eta 3 urteko haurren kasuan izen-abizenak eta ohiko geltokia adierazten duen lepokoa ekartzea lagungarria litzateke. Geltokian haurra jasotzera inor etorriko ez balitz, haurra ikastolara itzuliko litzateke eta familiarekin kontaktuan jarriko ginateke.

4.OTRAS OBSERVACIONES

- La ropa que encontremos y que no indique el nombre y apellidos de la niña-o la dejaremos en los percheros del piso de abajo y el último viernes de cada mes la retiraremos. Si echáis en falta alguna ropa, mirad en los percheros, por favor.
- **Las niñas-os de 3-4 y 5 años deberán traer una muda y unos pantalones a la ikastola.** Si la niña-o llevase alguna ropa de la ikastola a casa, traedla cuanto antes, por favor.
- Celebraremos los cumpleaños en grupo. Para ello deberéis traer un bizcocho y velas. No traigáis chocolate ni chucherías, por favor.
- AUTOBUS: sería de gran ayuda que las niñas-os de 2 y 3 años llevasen un collar identificativo con el nombre-apellidos y la parada habitual. Si no hubiese nadie en la parada, la niña-o volvería a la ikastola y nos pondríamos en contacto con la familia.